

BEKAK

Gaurtik aurrera, Irailaren 17tik, zure seme-alabaren beka egin dezakezue interneten bidez egiaztatze kidea erabiliz. Kode hau ikaslearekin bidaliko dugu

Irailaren 24tik aurrera, etor zaitezke eskolara beka egitera

NOLA EGIN INTERNETEN BIDEZ BEKA EGIAZTATZE-KODEA ERABILIZ (Irailaren 17tik aurrera)

Joan den ikasturtean(2017-2018) bekadunak izan ziren ikasle guztiek bekako inprimaki bat etxera eramango dute. Zentroan emango inprimakian aldaketarik edo akatzak ez badira, eskatzaileak eskabidea onartu eta telematikoki aurkez dezake, idazkaritzara joan beharrik gabe.. Kontuan hartu 2017ko Errenta Aitorpena Euskal Autonomia erkidegoan egon behar dela egin

Horretarako, tutoreak (ama, aita edo legezko tutorea) inprimakian adierazitako helbidera sartu behar du: **www.euskadi.eus/eusko-jaurjaritza/hezkuntza-saila/**

Helbide honetara sartuta, aterako den pantailan, identifikazio dokumentuko datuak eta egiaztatze-kodea sartu beharko ditu. Honekin beka bukatutzat ematen da.

Nahi baduzue aukera duzue pasatzeko eskolatik inprimakiarekin eta laguntza emango dizuegu.

(Irailaren 24tik urriaren 19 arte)

Emandako bekako inprimakian akatzaren bat, zerbait aldatu nahi baduzue edo dokumentazio berria aurkezten baduzue (lortutako diru-sarrerak, DBE, laguntza sozialak, beste erkidegoko errenta...) derrigorrez eskolako idazkaritzatik pasa behar zarete. (Irailaren 24tik urriaren 19 arte)

Beste aldetik, bekadun berriak derrigorrez idazkaritzako bulegotik pasa behar zarete edo interneten bidez egin sinadura elektronikarekin. (Irailaren 24tik urriaren 19 arte)